

Solidaridad con el Gaztetxe de la Rotxapea! Aldaketa aurrera! Maravillas Gaztetxea aurrera!

MARAVILLAS GAZTETXEA :: 16/05/2018

[Eusk/Cast] Desde el Gaztetxe Maravillas nos preguntamos: qué clase de cambio es aquel que reproduce las mismas políticas empleadas por la derecha fascista durante años?

[Euskara]

Pasa den irailaren 3an Alde Zaharreko gazte eta herri mugimenduko hainbat kolektibok Nabarrerria Plazako Marques de Rozalejo jauregia zena auzora irekitzea erabaki genuen, modu honetan hiriaren bihotzean auzorako eta hiri osoarendako gune sozial bat sortuz. Guk argi dugu: Ez dugu onartuko egun dugun gune autogestionatuen gabezia izanik horrelako espazio bat hutsik eta itxirik izatea.

Sartu bezain pronto espero genuenarekin egin genuen topo: hamaika aukera zituen espazio bat bai, baina erabat zaharkiturik zegoena, utzikeria iraupen luzearen ondorioz. Nolanahi ere, honek ez zuen eragozpenik ekarri, berehala hasi baikinena auzolanaren bitartez eraikina moldatu eta egokitzen nahi genuen erabilera sozialerako apropos uztea lortu dugun arte. Izugarritzko auzolanarekin batera hamaika izan dira orain arte antolatu ditugun ekimenak, hala nola, hitzaldiak, kolektiboen bilerak, proiektzioak, antzerkiak ...(500 baino gehiago orotara!). Autogestioaren eta autoantolaketaaren bitartez ekimen horiek guztiak Alde Zaharrari zein Iruñea osoari eskaintzeko gai izan gara. Gutxinaka hiriko kolektiboetan barneratu garen heinean hainbat proiektu sortu egin dira Maravillas Gaztetxetik: Zinema, jantoki soziala, herri palestra, elkartasun elikagai bankua, euskaltegia, liburutegia etab.

Hala eta guztiz ere, Geroa Bai-k lehenengo minututik bide errepresiboaren hautua, autogestio proiektu hau eteteko xedez, 5 pertsonen gainean salaketa jarritz. Honen berri izanik ere, Maravillas Gaztetxetik irtenbide adostu bat eztabaidatzeko proposamena egin genuen, ez baikenion nafar eskuin faxistari inolako mesederik egin nahi. Gauzak honela, Nafar Gobernuarekin mediazio prozesu batean sartu ginen adostasun puntu batera heltzeko helburuz. Pare pare harresi baten aurrean aurkitu ginen hor, Nafar Gobernuaren proposamen bakarra honakoa izanik “Eraikinetik alde egin, hondatutakoa ordaindu eta orduan salaketa kentzea pentsatuko dugu”. Onartezina guztiz. Ez bakarrik haien utzikeriarengatik zaharkitutako eraikina berregokitzeko proiektuan lan egin duten ehunka pertsonen suposatzen duen irain galantarengatik, baizik eta honek gure proiektuarekiko suposatzen duen xantai argiagatik ere. Haien arkupetik pasa ala errepresioaren mehatxua.

Edonola ere, Geroa Bai-ren “proposamen” honen aurrean elkarrizketarako hautua egiten dugu beste behin ere. Entzungor egin duten harren, gure proposamenak baitira gutxi izan: Espazioaren legeztatzea, arautegiaren betetzea, berregokitze lanak etetea ... Edozer herri proiektu hau bizirik mantentzearen. Tamalez, Nafar Gobernuaren jarrera ez da batere aldatu, honela alderdiaren izaera eta aldaketarekin duen konpromezu eza agerian

utziz.

Honen guztiaren aurrean, Maravillas Gaztetxetik zenbait galdera ditugu: Zein aldaketa mota da hau, urtetan eskuin faxistak erabili dituen politika berberak erreproduzitzen dituen? Zein ezker mota da herriaren alde kokatu ordezk legea eta ordenaren baitan kokatzen dena? Nor hari da aldaketaren kontra? Honengatik deia luzatzen diegu Nafarroan aldaketaren alde apustua egiten duten ezkerreko indarrei proiektu hauen defentsa egin dezaten. Geroa Bai-ri azken dei bat egiten diogu bide errepresiboa alde batera utzi eta negoziaketara eser dadin.

Bukatzeko, herri mugimendu osoari espazio hauek bete eta bizitza ematen jarraitzeko gonbitea egiten diogu.

Errotxapeako gaztetxearekin elkartasuna!

Aldaketa aurrera!

Maravillas gaztetxea aurrera!

[Castellano]

El 3 de Septiembre del año pasado diversos colectivos del Movimiento Juvenil y Popular de Alde Zaharra entrábamos en el antiguo palacio Marqués de Rozalejo con la intención de transformarlo en un centro social para el barrio y la ciudad, ya que, ante la falta de espacios autogestionados que había y sigue habiendo, era intolerable que hubiera un edificio en el corazón del barrio en desuso desde hacía muchos años.

Nada más entrar nos encontramos lo que esperábamos, un edificio con muchas posibilidades pero deteriorado por el paso del tiempo y el abandono institucional, no obstante, ese hecho no suponía ningún impedimento para nosotras, ya que gracias al auzolan fuimos capaces de reconstruir todo un edificio para acondicionarlo al uso social que le queríamos dar. Paralelamente a todo el trabajo de rehabilitación que fuimos haciendo, comenzamos a llenar de vida y actividad al espacio, programando decenas de talleres, charlas, reuniones de colectivos, proyecciones, teatro, ... Un sinfín de actividades (más de 100!) orientadas al Casco Viejo y a toda Pamplona realizadas desde la autogestión y autoorganización popular. Poco a poco fuimos enraizando en los colectivos de la ciudad y nacieron numerosos proyectos que hoy día avanzan a toda máquina, como el cine, el comedor social, el gimnasio popular, el banco solidario de alimentos, el euskaltegi, la biblioteca, etc.

A pesar de todo, Geroa Bai, desde el minuto uno, se inclinó por la vía represiva para frenar la autogestión popular, denunciando los hechos y mandando a cinco personas a un proceso judicial. Aun con todo, desde el Gaztetxe apostamos por encontrar una salida acordada entre las partes con el ánimo de no crear discordia ni dar carnaza a la derecha fascista navarra. Fue así como entramos en un proceso de mediación con el Gobierno para intentar llegar a un punto de acuerdo, sin embargo, nos encontramos con un muro de piedras enfrente nuestro, ya que la propuesta de Geroa Bai era inaceptable: “os tenéis que ir, pagáis todos los desperfectos y si eso, os retiraremos la denuncia”.

Inaceptable. No solo porque es un autentico insulto al trabajo que cientos de personas han realizado para rehabilitar un edificio que ellos mismos tenían en estado de abandono, sino porque esto supone un chantaje hacia nuestro proyecto, amenazando con aplicar la represión si no pasamos por el aro. No obstante, consideramos que frente a esa “propuesta” del Geroa Bai, podíamos llegar a dialogar para buscar un acuerdo, y no faltaron propuestas por nuestra parte: regularizar el sitio, cumplimiento de la normativa correspondiente, paralización de la rehabilitación, ... Todo lo que fuera necesario para mantener vivo este proyecto popular.

Desgraciadamente, la postura del Gobierno no varió ni un ápice, demostrando su talante para con el proyecto y su compromiso con el cambio. Frente a todo ello, desde el Gaztetxe Maravillas nos preguntamos: qué clase de cambio es aquel que reproduce las mismas políticas que las empleadas por la derecha fascista durante años? Que clase de izquierda es aquella que no se posiciona con el pueblo, sino con la ley y el orden? Quién actuá contra el cambio en este sentido? Es por eso que instamos, una vez más a todas las fuerzas políticas de izquierdas que apuestan por el cambio en Nafarroa a defender este proyecto. A Gero Bai a que abandone la vía represiva y se siente a negociar de nuevo y por último y más importante, a que el conjunto del Movimiento Popular siga usando el espacio y llenándolo de vida.

Solidaridad con el Gaztetxe de la Rotxapea!

Aldaketa aurrera!

Maravillas Gaztetxea aurrera!

<https://eh.lahaine.org/solidaridad-con-el-gaztetxe-de>